# SALLABENTEKARIA

2014KO EKAINA. 32. ZENBAKIA

## ASTE KULTURALA

Denetarik izan dugu aurtengo aste kulturalean: Kantaldiak, ipuin kontalaria, ikasleek egindako antzerkiak, gurasoek antolatutako eskulan tailerrak, sari banaketa, dantza, gozoak...
Guztiak ederki atera eta primeran pasatu dugu























# BERRIAK

## KOMIKI SARIA IRABAZI DUGU

Natura tailerrean egindako komikiak Agenda 21eko lehiaketa irabazi du. Ainhoa, Wafa, Iker eta Gizane izan dira egileak eta saria, 6. maila guztiarentzat Zumaiako kostaldea itsasontzian ikustea da.




## KOLOREEN JOLASAK






Aurten ere, koloreen talde jolasak egin ditugu eskolako ikasle guztiekin. Kirola eginez 2. hiruhilabetea agurtu genuen.

## ESKOLAKO IPUIN LEHIAKETAKO IRABAZLEAK






Ismael, Ainhoa, Gorka eta Naiara izan dira aurtengo ipuin lehiaketako irabazleak. ZORIONAK!

## NATURA TAILERRA



Azelgak landatzen

OTSAILEAN

MAIATZEAN



## IPUINEN MARRAZKI IRABAZLEAK



Lehiaketa honetan 2. mailararteko ikasleak parte hartu dute, eta irabazleak: Urko, Olatz, Nora, Ander, Leire eta Naroa dira. ZORIONAK




## TXITA JAIO DA ESKOLAN



Pello irakasleak, eskolara 6 arraultza ekarri zituen eta baita incubadora artesanal bat. 21 egunetan, epeletan egon dira arraultzak eta 12 orduro arraultzei buelta ematen genien. Azkenean, zoramena. Justu, ume talde bat bisita egiten ari zela, 1. txita jaio zen. Dagoeneko 5 txita ditugu, hoietariko bat beltza.

# HAUR HEZKUNTZA

## 2 URTEKOAK

2 urtekoei ipuinak asko gustatzen zaizkie. Oraingoan, 3 txerrikumeen ipuina kontatu dietenez, txerrien karetak prestatu dituzte





## 3 URTEKOAK BUZTINAREKIN LANEAN



Bai dibertigarria dela buztinarekin jolastea. Aurrekoan gure izena egin genuen eta orain ikasitako zenbakiak. Margotu ondoren etxera eramango ditugu.

## 4 URTEKOAK IPUINAK ENTZUTEN

4. mailakoak 4 urtekoen gelara etorri dira ipuina kontatzera. Haur guztiak adi adi egon ziren kontakizunak iraun zuen bitartean, eta nagusiak apur bat urduri egon arren primeran egin zuten.






## 5 URTEKOAK MARGOLARI

5. urtekoak urtean zehar margoketa teknika ezberdinak ikasi eta praktikatu dute. Urtean zehar, Kandinsky, Claude Monet (argazkian dagoena) edota autoerretratoa landu dute. Orain, Andy Warhol-en era ezagutu eta margotzen ari dira eta kurtso bukaeran erakusketa bitxia egingo dute 5 urtekoek.

# 1. ZIKLOA



## 2. CURSO EN LA EXPOSICIÓN DE MARIONETAS

Un italiano afincado en Ondarroa nos ha mostrado sus marionetas en una interesante y divertida exposición. Hemos podido ver marionetas originales procedentes de diferentes países de Europa, Asia y África, así como otras que han sido construidas por el artista.

Nos ha hecho demostraciones de las diferentes técnicas marionetísticas y hemos disfrutado de lo lindo de la exposición.







## 1. MAILA SALTOKA

Lagunari eskutik heldu, korrika hasi eta zas!!! Salto egiten saiatu gara hesien gainetik. Piska bat entrenatu ondoren, guztiok lortu dugu hesiak jaurti gabe saltatzea.

## ORNITOLOGIA



Ornitologiari buruzko oinarrizko hastapen ikastaroa  egin dugu bertako txoriak (kaskabeltza,, kukua, amilotxa...) ezagutzeko eta behatzen ikasteko. Baita ere ibilbide ornitologikoa egin dugu txoriak ikusteko eta egin ditugun kutxa habiak eskola inguruko zuhaitzetan jartzeko.

# 2. ZIKLOA

## 3. MAILA KOMIKIAK EGITEN

3. mailan idazlan desberdin asko egiten ari gara. Horien artean komikiak daude. Taldeka egin ditugu. Hona hemen batzuk.




## HIRIGINTZA

Isabel Prietoren laguntzaz HIRIGINTZA TAILERRA egin dugu. Gure herriaren antolaketa, eta dauzkan eraikuntza garrantzitsuenak ezagutu genituen. Gero udaletxean, pleno aretoan eta hirigintza bulegoan egon ginen.

TAILERRA INTERESGARRIA IZAN ZEN BENETAN!






## IPUINA KONTATZEN

Naiarak eskolako ipuin lehiaketa irabazi du. Horregatik 4 urtekoen gelara ere joan ginen ipuin irabazlea kontatzera. Jarraian, 4 urtekoek marrazkia politak egin zituzten.
Asko gustatu zitzaien ipuina.



# 3. ZIKLOA

## INTERKULTURALITATE ASTEBURUA

Beste urte batez, gure eskolak Ermuko interkulturalitate asteburuan parte hartu du.












6. mailakoak, Lekarozen egon dira aste osoa ingeleseko barnetegian. Asko ikasi, lagun berriak egin eta primeran pastu dute.

## INGELESEKO BARNETEGIA



## 5. MAILA PATINETAN



¿QUÉ ME HACE FELIZ?
Para mi la felicidad es un sentimiento bueno que experimentamos cuando nos gusta algo o cuando nos dicen cosas bonitas. Cuando experimento la felicidad es cuando estoy con mi familia porque al estar con ellos, me siento bien, a gusto y protegida.
Luego en cambio, cuando me siento infeliz es cuando me culpan por algo que no he hecho Y eso me pone muy furiosa.
Algunas veces, tus padres, amigos, primos,... te dicen palabras que te gusta oír y entonces te sientes feliz por esas palabras. Como por ejemplo:"Que guapa eres..."
Me gustaría aconsejarles a las personas mayores Que jugasen mas con los niños.
Un día, quisiera ir a visitar a un sabio que Lo sabe todo sobre la felicidad y le preguntaría que si podríamos conseguir la felicidad para los niños y niñas pobres. PAULA SANCHEZ

¿QUÉ PERSONAJE ME GUSTARÍA SER?
Para mi un personaje es una persona a la que mucha gente le admira y le gusta como trabaja. Si pudiera ser un personaje, elegiria a Doraemon. Porque es un gato del futuro, porque ayuda a mucha gente y es muy gracioso y divertido. Siempre saca un invento de su bolsillo magico y se divierte mucho. Tiene un invento para cada ocasión
Si pudiera elegir algo que Doraemon no haya hecho todavía elegiría ir a algún sitio donde hubiese bastante pobreza y darles alguno de mis inventos. Así no habría tanta pobreza.
XIANA RODRIGUEZ

## ANTZERKIA

4. eta 6. mailakoek Unibertsitate laboralean "Juan Beldurgabea" eta "Irakasle gaiztaok" antzezlanak jende mordo baten aurrean,eskeini zuten. Antzerkia hasi aurretik Horrelakoak entzuten ziren aktoreen ahotik: "Jende asko dago? Ai ama!", "Jo, que nervios", "Seguru ahaztu egingo zaidala", "yo no salgo", "Pisagurea daukat" ... Baina azkenean, primeran atera zen eta ondo merezitako txalo zaparrada jaso zuten.























# ZER DA ESKOALATIK GUSTATZEN ZAIZUNA? ZER EZ?



**UNAI**

Gehien gustatzen zaidana plastika eta irteerak egitea da



**MIREN**

Ordu asko pasatzen ditugu eskolan eta batzutan aspertu egiten naiz.

**OHIANA**

Normalean ondo pasatzen dut eta gustukoena jaialdiak dira. Ez zait gustatzen jendea haserretzen denean



**DANEL**

Gehien gustatzen zaidana patioan futbolean jolastea da. Ez zait gustatzen haundiak fastidiatzen hasten direnean





**EIDER**

Gauza berri asko ikasten dituzu: animaliak, historia. Ez zaizkit gustatzen etxerako lanak. Ah, errekreo gehiago jarri behar da



**SAIOA**

Gehien gustatzen zaidana lagunekin egotea eta haundiekin jolastea da.